

Bake prozesua: eman beste aukera bat



Xabier Letona

@xletona

LAU URTE pasatu dira ETAk jarduera armatua utzi zuenetik eta aukera itzela utzi da galtzen gatazkari irtenbide egoki eta justua emateko; egia, justizia, erreparazioa eta ez-errepikapenean oinarritutako irtenbide bat eraikitzeko.

Ez da halakorik nahi izan, Estatuak irabazle eta galtzaileen eskema inposatu dio euskal gizarteari. Espainiako Gobernuak ez du nahi izan; EAJk eta Eusko Jaurlaritzak ez dute horren aurka egin; ezker abertzaleak bakarrik ezin du; eta gizarte zibilean ez dago indarririk instituzio eta alderdiak norabide horretara bultzatzeko.

ETA –eta ezker abertzalea– zokoratzeak eta egiazko bake prozesurik ez bultzatzeak ez du inondik inora elikatzen ez-errepikapena, guztiz kontrakoa baizik

2011n pentsa zitekeen ETAREN armak edo bere etorkizuna oso garrantzitsuak izan zitezkeela bake prozesu bat abiarazteko. Beti izan da hala irtenbide duinak bilatu diren munduko gatazketan. Eta hau, bat gehiago da, bere ezaugarri eta indar harremanekin, baina bat gehiago. Lau urte hauek erakutsi dute armak eta bestelakoak aitzakiak direla. Gaur egun ETA ez da ezer, sinbolo handi bat ez bada, bai bere etsaizentzat bai bere aterpean direnentzat.

EGIA, justizia, erreparazioa eta ez-errepikapena. Laukote ederra, baina egungo eskeman garatu ezinak.

Egia. Lekutan da. Egiazko prozesu eraikitzaile bat bultzatu izan balitz, gertatutakoaz askoz gehiago jakingo genuke –behin ere ez da dena jakiten, inongo gatazketan– ETak eta Estatuak egindakoez.

Justizia. ETAREN jarduera armatua gogotik zigortu da, Estatuaren errepresioa zigorgabetasun judizial eta politikoan da, izan legez kanpokoak –GAL, tortura...– edo legezkoa (heriotz ugari, Egin eta Egunkariaren itxierak, auziperatze masiboak...); mendekuaren justiziatik baino, justizia konpontzailetik tiratu izan balitz, gaur egun preso gutxi leudeke espetxeetan –eta akaso bat bera ere–, izan etakide, torturatzaile edo GALAREN X; eta justizia orekatuagoa zatekeen.

Erreparazioa. Garrantzitsuena, hildakoak, errepara ezina da. Dirua ongi da, baina aitortza da garrantzitsuena. ETak asko aitortu du beretik, Estatuak ezer gutxi. Eta hala ere, ekimen interesgarriak ari dira bideratzen, bai biktimizek haien artean, bai hainbar elkarreteratik eta baita Eusko Jaurlaritzatik ere. Komeniko litzateke gizarteko esparru askoz gehiagotan erreparazioaz hitz egitea, sakon eta era guztietako biktimizei begira. Gutxi egin da, eta batez ere ETAREN biktimizek erreparazioaz hitz egin da.

Ez-errepikapena. Ez dira jartzen ari egiazko oinarri sendoak gertatu dena berriz pasa ez dadin. Aurretik aipatu diren faktoreez luze eta zabal hitz egin behar da, memoriaz, autokritikaz... baina hori guztia bi baldintzetan oinarritu behar da: zintotasunean eta askatasunean. Ez da horietako bat bera ere bultzatzen. Autokritika eskatzen zaio

ezker abertzaleari, baina esaten zaio zer esan behar duen, hau da, ETak erabilitako biolentzia injustua izan zela eta ez zuela ezertarako balio izan. Eta ezker abertzalearen sektore zabalek ez dute hori sinesten, ez partekatzen, eta gainera ez dute askatasunik pentsatzen dutena esateko, espetxe edo zigor arriskua jasan gabe. Ez da eraginkorra.

Biolentzia hor egon da beti, hor dago eta egongo da, bai boterean eta baita hari erantzunez ere. Humanitatearen historian erabat txertatua dagoen fenomeno da, jendarteari eta pertsonari erabat atxikia. Edozein esparrutan ahalik eta agerpen txikiena izan dezala, hor dago koska.

GATAZKAREN aktore guztien arteko elkarriketa libre eta sakona da ez-errepikapenaren bermerik egokiena. Oraingo ereduak arazoak ezkutatu egiten ditu, ez bideratu. ETA –eta ezker abertzalea– zokoratzeak eta egiazko bake prozesurik ez bultzatzeak ez du inondik inora elikatzen ez-errepikapena, guztiz kontrakoa baizik. Hitz egin dadila argi eta ozen, eta atera ditzala bere ondorioak euskal gizarteak.

PPren mendeku ereduarekin, arazo politikoen irtenbide politikoak ukatuz, edo errepresio soilarekin... lehenago edo geroago historia errepikatzen aukerak badira. Hori diosku historiak: bakoitzak bere izaera desberdina du, baina hori dira karlistadak, 36ko gerra, ETAREN mende erdia...

Madril klabea da, baina Gasteiz ere bai. Egoera berriak eman dezake aukerarik Madrilen, bada ordua lema norabidez aldatu eta gizartea benetan aktibatzen egiazko bake prozesu baten alde. ■